




***1.ALDIRAKO PROBLEMEN SOLUZIOAK***

1.- Zenbat 4 zifrako zenbaki daude, beraien zifren batura 33 baino handiagoa dela jakinda?

Soluzioa: 15

Zenbaki bat dago 4 bederatziz:	9999
4 zenbaki daude 3 bederatziz eta zortzi batekin:	9998,....
6 zenbaki daude 2 bederatziz eta 2 zortziz :	9988,...
4 zenbaki daude 3 bederatziz eta zazpi batekin:	9997,...

2.- Ondoko irudian ikus dezakezunez 5x5 karratu batean beltzez pintatuta daude laukitxo batzuk. Laukitxo bakoitzak  $\text{cm}^2$  bat baldin badauka:



- Margotu gabe geratzen den azalera zenbat  $\text{cm}^2$  neurtzen du?
- Karratua  $7 \times 7$  izango balitz galdera berberari erantzun.
- Eta karratua  $n \times n$  izango balitz ( $n$  zenbaki bakoitia izanik)? Idatzi  $n$ -ren arabera margotu gabe geratzen den azalera

Soluzioa:

- 16
- 36
- $n^2 - 2n + 1$

3.- Nerea eta Ion ondorengo jokoa jolasten ari dira:

Hasieran fitxa batzuk daude lerro ezberdinetan kokatuta. Jokalari bakoitzak, txandaka, fitxa bat edo batzuk har ditzake, baina lerro bakar batetik. Azken fitxa hartzen duenak irabaziko du jokoa.

Beti hasiko da Ion

- Hemen duzu hasierako posizioa: Hiruna fitxa bi lerrotan  
Azaldu nola irabaz dezakeen Nereak beti, Ionek egiten duena egiten duela.
- Beste hasierako posizio honekin, azaldu nola Nereak ere irabaz dezakeen beti.

Soluzioa:

- Nereak errepikatu behar du Ionen jokaldia
- Ionek hartzen badu 1. lerroko fitxa bakarra, Nereak 3. lerroko fitxa bat hartuko du

- b2) Ionek 2.erroko fitxa bat hartzen badu, Nereak 3.erroko 3 fitxak hartuko ditu
- b3) Ionek 2.erroko 2 fitxak hartzen baditu, Nereak 3.erroko 2 fitxa hartuko ditu
- b4) Ionek 3.erroko fitxa bat hartzen badu, Nereak 1.erroko fitxa bakarria hartuko du
- b5) Ionek 3.erroko 2 fitxa hartzen baditu, Nereak 2.erroko 2 fitxak hartuko ditu
- b6) Ionek 3.erroko 3 fitxak hartzen baditu, Nereak 2.erroko fitxa bat hartuko du


4.- Hona hemen kubo baten 6 aurpegiak:



Eta hemen duzu kubo hiru ikuspuntutik ikusita.




a) Ondorioztatu aurpegi bakoitzaren posizioa besteekiko eta margotu ondorengo sarean



b) Eta sare berean ipini erpinetako letrak dagozkien lekuetan

Soluzioa:

a) Balizko soluzio bat:



b)

